

OHIZKO OSOKO BILKURA

2016.11.22

Tolosako Udaletxean, 2016ko azaroaren 22an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 22 de noviembre de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:

Ibai Iriarte San Vicente

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2016ko urriaren 25eko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 25 de octubre de 2016.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por

2016ko urriaren 1etik 31ra (2016/1785-2016/1964).

3. 2016/1994 Dekretuaren berri ematea: Berdintasuneko batzordeko bokalaren izendapena.
4. Merkatal sektorea biziberritzeko diru laguntzen programak arautzen dituen ordenantzaren onarpena.
5. Tolosako Udalaren kreditu aldaketarako 5/2016 eta 6/2016 espedienteak jakinaraztea.
6. Tolosako Udalaren kreditu aldaketarako 7/2016 espedientea hasiera batez onartzea.
7. lurreamendi Egoitzaren kreditu aldaketarako 2/2016 espedientea hasiera batez onartzea.
8. Konpromiso kredituaren espedientea hasiera batez onartzea.
9. Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta, Udal adierazpena.
10. Abenduaren 3an Euskararen eguna dela eta, Adierazpen instituzionala.
11. Galderak eta eskaerak.

la alcaldía:

Del 1 al 31 de octubre de 2016 (2016/1785-2016/1964).

3. Dar cuenta del decreto 2016/1994: Nombramiento de vocal de la Comisión de Igualdad.
4. Aprobación de la Ordenanza reguladora de los programas de subvenciones para revitalizar el sector comercial.
5. Dar cuenta de la modificación de créditos 5/2016 y 6/2016 del Ayuntamiento de Tolosa.
6. Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 7/2016 del Ayuntamiento de Tolosa.
7. Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 2/2016 de la Residencia lurreamendi.
8. Aprobación inicial del expediente del crédito de compromiso.
9. Declaración Institucional con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres.
10. Declaración Institucional con motivo de la celebración del Día Internacional del Euskera el 3 de diciembre.
11. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1. **Ondorengo akta onartzea: 2016ko urriaren 25eko Ohizko Osoko bilkurakoa.**

1. **Aprobación de la siguiente acta: Sesión ordinaria del 25 de octubre de 2016.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2016ko urriaren 1etik 31ra (2016/1785-2016/1964).

Alkatetzak 2016ko urriaren 1etik 31ra bitartean (2016/1.785-2016/1.964) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 31 de octubre de 2016 (2016/1785-2016/1964).

3. 2016/1994 Dekretuaren berri ematea: Berdintasuneko batzordeko bokalaren izendapena.

3. Dar cuenta del decreto 2016/1994: Nombramiento de vocal de la Comisión de Igualdad.

Alkateak azaldu du Berdintasuneko batzordekidearen aldaketa, Nuria Carbonell Miranda Kultura, Festak eta Gaztedi batzordeburua izanik arazoak zituela Berdintasun batzordeko bilerekin konpatibilizateko.

Idazkariak 2016/1994 Alkatearen dekretuaren berri eman du. Honek honela dio:

**“ALKATETZA DEKRETUA
Zk.: 2016/1994**

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.

Udalbatzak, 2015eko uztailaren 7ko erabakiaren bitartez, Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onesten duen 2.568/86 Errege-Dekretuak 38. artikuluan xedatzen duena betez, batzorde informatiboak sortzea eta hauen konposaketa erabaki zuen.

Kontuan izanda, alkateak ahalmena duela batzorde informatiboetan Udal taldeen ordezkariak adskribitzeko, beti ere alde aurretik ordezkariak proposatu badizkio dagokion Udal-taldeak.

Ikusirik EAJ/PNVko Udal Taldeak idatzia aurkeztu duela Berdintasuneko Batzordeko bokala den Nuria Carbonell Miranda zinegotziak batzorde horretan daukan kargua utziko duela eta bere ordez Begoña Mendia Tolosa zinegotziaren adskripzioa proposatu duela.

Hori horrela, Alkatetzak

ERABAKI DU

Lehen.- Nuria Carbonel Miranda zinegotziak Berdintasun batzordean daukan bokalaren kargua uzteko eskaera onartzea.

Bigarren.- EAJ/PNVko Udal taldeko zinegotzia den Begoña Tolosa Mendia behin-betikoz Berdintasuna batzordean bokal bezala adskribitzea.

Hirugarren.- Ebazpen honen berri aipatutako zinegotziari, batzorde informatiboaren lehendakariari eta Udalbatzari ematea.

Tolosan, 2016ko azaroaren 4an”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Merkatal sektorea biziberritzeko diru laguntzen programak arautzen dituen ordenantzaren onarpena.

4. Aprobación de la Ordenanza reguladora de los programas de subvenciones para revitalizar el sector comercial.

Partehartzeak:

Lehenik Konturhartzailleak, alkateak horrela eskatuta, azaldu du gai hau plenoak erabakia hartu beharraren arrazoia, ordenantza baten beharra.

“Legea dago Estatukoan oinarrituta, hemen ordenantza orokor bat dago. Baina programa zehatzak arautzeko beste ordenantza bat behar da eta osoko bilkura da eskumena daukan organoa. Deialdia alkateak egin dezake baina ordenantza honetan oinarrituta. Printzipioz, horrela dago arautu 17. artikuluko horretan. “

... Nerea Letamendia Belloso, Merkataritza, Feriak eta Turismo batzordeburua : *“Ordenantza honi daukan izenburua jarri diogu Merkataritzako sektore biziberritzea, bertan bi programa desberdinak txertatzen ditugulako, Berriz programa eta Gune Biziak. Lehenik Berriz programaren aurrekariak azalduko ditut. Berriz programa Eusko Jaurlaritzak kudeatzen eta sustatzen duen programa da. 2014. urtean Tolosa herri piloto aukeratu izan zen eta 2014 urtean egon ziren aztertzen. Esku aldaketa bat da, momentu honetan aktiboki dagoen merkataritza gune batek bere lana eten egin behar duelako edo jubilatzeaz dagoelako uztartzen da ekintzaile batekin, merkatal gune horretan inizatiba edo ekintzailea dena. Orduan lotu egiten dira bi transmisore horiek, bai bata eta bestea nola kudeatu. Horretarako Berriz programaren bidez, non Gipuzkoako Ganbarak kudeatzen duen programa hori, bideragarritasun plan ekonomikoa eta transmisio guztia egiten du. Jakin, badakizue, prozesu hau bi hilabetetik bi urtera iraun dezaken gauza bat da. 2015 urtean programa hau ireki egiten da Euskadi osora eta gaur egun hogeita hamar kasu itxi egin dira. Iaz, Tolosan bi saltoki sartu ziren programan eta espedienteak itxi egin izan dira dagoeneko, bat Maite*

denda eta bestea Solana kalekoa. 2014 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza atera zuen transmisioa enpresan lelopean eta Tolosako udalak eskatu zuen dirulaguntza bat. Zuzenean Tolosako udalari eman egin zitzaion 60.000 € eta horren arabera 2015eko urtean ireki zen deialdi bat ezaugarri desberdinekin. Hiru ardatz ezberdinak zeuden: bata, 1800 euro, banatzen ziren 6 hilabeteetan. Bestea zen 10.000 €koa, itzuli beharrik gabekoak; eta hirugarren kasua alojeran laguntzeko diru bat jartzen zen. 2015. urtean zehar garatu ziren bi programa horietan, lehenengo faseko dirulaguntza hori, 1800 €koa 6 hilabetezko hori, inork ez zuen onartu. Bigarrena, 10.000 €ko hori, itzuli beharrik gabeko horretan zuriaketaren inguruan momentu honetan arazoak ditugu. Eta bestean, alojeran edo jabetzarena, bi kasu horiek alojeran izan ziren. Deialdia hori abenduan bukatu zen eta eman zen diru horren zuriaketa egin behar diogu Aldundiari. Aurreikusi ziren sei kasu izango zirela, baina bi bakarrik izan ziren. Hori bukatu eta bitartean 2016ko aurrekontuak egiten ari ginen, Berriz programaren kasuan ikusten zen 2015ean diru partida handi zela eta guk 2016an jartzen genuena zen itxita zeuden bi horien urteko alojerak edo urte osokoak. Aurrekontuak azaldu genituenean esan genuen dirulaguntzarik etorriko balitz, kreditu aldaketa bat egingo genuela diru hori txertatzeko, eta deialdia irekiko genuela baldintza ezberdinekin. Abuztuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak bideratu zituen eta dirulaguntza horiek zuzenean ekintzaileei bideratuta daude. Hau da, Tolosako udalak ez dauka aukerarik, ezin zuen eskatu dirulaguntzarik. Ondoren etortzen da ordenantza bat egin beharra. Prozesu guzti horretan elkarlanean gaude Ganbararekin eta Tolosa&Co elkartearekin, baita Federazioarekin ere. Ematen ziren pauso guztien edo beste deialdian dirulaguntzak zituen hiru zutabeak hausnarketa batean egoten dira. 10.000€ko dirulaguntzarekin, itzuli beharrik gabeko kopuru horren zuriaketarekin, horiek justifikatzeak batzutan arazoak ekarri ditzakeenez, martxan jartzen dugu alojera sustatzearena eta hori deialdi honetan hori da sartu duguna gaur egun.

Hori adierazita, Berriz programa bi urte darama eta momentu honetan Jaurilaritzan balorazio prozesuan daude. Programa ondo doa, baina gabeziak ditu eta horietako bat izan daiteke ekintzaile berri hori lagundu egin behar zaiola, jarraipena egin behar zaiela, zer laguntza dauden, nola kudeatu teknikoki lagundu egin behar zaiela uste dut. Beste aldetik, badaude beste dirulaguntza batzuk Eusko Jaurilaritzaren eskumenak direnak: saltokiak berritzeko, informatika, dirulaguntza dexente daude. Guzti hau kontutan izanik Berriz programaren dirulaguntza alojeran oinarritzen da. Ekintzailei laguntzeko gaude bai Aldundia, bai Jaurilaritza eta baita Udalok ere, eta kasu honetan gure ekarpena alojerarena izango litzateke.

Gune biziak aspaldiko Percoak azaltzen zuten. Badakizue Tolosan, krisia dela eta, saltokia asko itxi egin direla. Badaude kale batzuk, bere errealitatearengatik, lokal huts dexente dauzkanak. Gune proiektua sortzen da lokal hutsak ireki edo erakusleiho hori txukun mantentzeko bidean. Proiektua hau Olot herriko proiektutik dator, erakusleiho hori txukundu eta beste saltoki batek bere produktua han erakutsi eta era batean edo saltoki hori alojera beste inizatiba bat izan dezatela. Momentu honetan, Gune biziak programa bi kaleetan daude, 2015ean bezala, Errementari eta Gudari kalean. Bi kale hauen errealitatea ezberdina da. Errementari kalea korreo kalekoaren saltokien atzealdea da eta beste saltoki asko gaur egun biltegi bezala erabiltzen dira. Azkenean, argi geneukan eta merkatariarekin elkarlanean, ornato ordenantza egin zen, aplikatu beharra dagoena, garbiketa ordenantza ere badago. Kale horretan ornato ordenantza aplikatu behar dugu Aukera daukazu gune bizian sartuez gero zure erakusleihoa ahalik eta txukunena jartzea. 2015 urtean erakusleiho bat jarri zen eta 2016. urtean lokal guztien jabeekin harremanetan jarri gara eta momentu honetan bi lokal egongo lirateke prest Gune Bizia proiektuan sartzeko. Errealitate hori ikusita, ordenantza honetan txertatzen dugu ere, kale horretan beste aktuzio baten beharra daukala, ahalik eta txukun mantentzeko. eta hori momentu honetan ordenantza honetan sartzen dugu aldaketa txiki hori. Gudari kalean denok dakigu, gehienak garajeak dira, Gune Bizia proiektuaz aparte, beste aktuzioen bat egin beharko da, ez dagoelako lekurik

horrelako gauzarik egiteko. Hori da ordenantza honetan sartzen ditugun bi proiektuak, gure departamentuko lehentasunekoak dira, horiek dira momentu honetan ordenantza honetan barneratu nahi ditugunak.”

- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Pozten gara Merkataritza departamentuari dagokionenean mugimendua ikusten hasi garelako eta zerbaitean behintzat ari zaretelako gaurkoan ordenantza hau ekarrita. Oso kezkatuta baikaude. Departamentu hau, ustez ezin bestekoa dena Tolosako merkataritza sustatzen laguntzeko, azken urte eta erdi honetan estankatuta egon delako. Legealdi hasi denetik urte eta erdi pasa da eta ez datorrelako proposamenarik ekarri merkataritzari dagokionean. Zentzu horretan kezagarria baina pozten gara pausoak ematen hasi zaretelako. Aipatu duzun bezala, Nerea; 2104an Berriz programarako Tolosa izan zen hautatua herri pilotu bezala. 2015ean programa gisa aurkeztu zen bai Berriz eta bai Gune biziak. Bere diru partidarekin, 100.000 €tik gorako ekarpena jarrita zegoen merkataritza alorrean, merkataritzan inbertitzeko. Guztioi ahoa betetzen zaigu esaten lankidetzara publiko pribatua ezinbestekoa dela, baina hitzetatik ekintzetara pasa behar da, eta 2015ean, egon bazegoen bertan inbertitu ahal izateko diru partida. Legealdiaren aldaketarekin ezer ez egiteaz gain martxan zeuden programa horiek gelditu egin ziren, ez dakit utzikeriagatik edo martxa ez zelako hartzen, departamentuan egindako aldaketen ondorioz. Baina 2016. urtean aurrekontuak aurkeztu zenituztenean, onartzeko eztabaidan proposatzen zen proiektu hauentzako dirua jartzea eta ez zen onartu. Orduan esan genuen aurrekontuetan aurreikusten ez ziren proiektuak nekez hasten direla eta 2016ko azaroan ikusten da ez dela ezer egin, diru partidarik ez zegoelako. Beste saiakera egin genuen likidazioa aurkeztu zenean, orduan gastatu ez ziren 100.000 €ak hor zeuden eta proposatzen zen likidaziotik ateratako diru horiek berriro kreditu aldaketan txertatzea programa hauei zuzenduta eta ez zen egin. Beraz, gaur azaroa bukatzen ari zaigun honetan, programa horiek egon hor bazeuden baina ez da ezer aurreratu. Hala ere, aipatu programa horiek bazeudela, aurkeztu duzuen bakarria irizpide teknikoaren baitan egindako ordenantza bat horrela egin behar zelako. Bestalde, batzordean ordenantza lantzen hasi aurretik, idatziz aurkeztu genizkizuen horrelako proposamen batzuk. Bere momentuan, pleno batean zuk Olatz esan zenidan, idatziz aurkeztutako proposamenak idatziz erantzuten direla. Guk idatzia proposamen horiek ez onartzearen inguruko arrazoiekin ez dugu jaso. Tolosako Udalak Berriz programari egiten zion ekarpena benetan sinesten genuelako programa hori babestu behar zela, ekarpena askoz ere handigoa zen, ez bakarrik alogerakoan, baizik 10.000 €ko diru poltsa eskaintzen zen eta sei hilabeteko lan kontratua finantzatzen zen. Zentzu honetan pentsatzen genuelako anbizioa ezinbestekoa dela Merkataritza sustatzeko garaian eta Udalak atal horretan ezin bestekoa zuela anbizio hori martxan jartzea. Aipatu duzu orduan dirulaguntzak zeudela, aurrekontua onartzeko garaian esan zenuen: “ dirulaguntza balego jarriko dugu”. Ezin da dirulaguntzen zain egon. Oso ondo dakigu Udalok nahiz eta eskumenak besteak izan, interesa dauzkagun arloetan ezinbestekoa zaigula ekarpenak egitea adibidez Musika eskola edo Euskaltegian. Urteetan zehar hor martxan jarraitzea nahi izan dugulako ezinbestekoa egin zaigu Udalarari diru ekarpenak egitea. Hau izan zitekeen beste adibide bat nahiz eta Merkataritza udalaren eskumena ez izan, benetan sinisten badugu lankidetzara publiko pribatua ezinbestekoa dela. Hain garrantzitsua den Tolosarako Merkataritza hor inbertitzea. Esan bezala pozten gara, behintzat hasiera eman zaio, ematen dugu merkataritza departamentuan pixka bat hasi garela lanean. Espero dugu 2017 urtean proiektuak jarraituko duela eta hala bada, besteetan esan bezala, bidelagun izango gaituzue. Beraz, alde bozkatuko dugu.”*
- ... Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV): *“Iraileko batzordean erantzun banuen ere eta baita Lore, zuri ere bakarka, zer irizpide zeuden, ordenantzaren nondik norakoak azaldu nizkizuen ere. Hedabide ezberdinak hemen zaudetela, orain eta hemen pleno areto honetan, orain bi aste EH BILDU-ko udal taldeak, merkataritzaren inguruan egin zituen*

adierazpen, batzuei erantzungo ditut.

Bai esango dut, orain kronologikoki azalduko ditudanak, Merkataritza, azokak, eta Turismo batzordean jorratu egin direla.

1. 2015- eko uztailaren 7an, udal antolakuntza berria azaldu zen pleno areto honetan, eta bertan saileko arduraduna eta batzordekideak izendatu ziren, Merkataritza, Turismo eta azoken lehendakaritza neri egokitu zitzaidan.

2. 2015 eko urteko udal hauteskundeetako aurrekanpainan eragile ezberdinekin egoteko aukera izan genuen, eta horrela landu genuen gure udal programa, non azaltzen ziren argi gure erronkak merkataritza sailean, esan EH bilduren udal taldearen erronkak ere oso paretsuak zirela, programa bertan adierazten genituen lan ildoak merkataritzarekin kontrastaturik zeuden.

3. Merkataritza sailerako teknikari berri baten beharra zegoen, gai honen inguruan esan, 2014 ko urtean, Tolosako udal gobernuak, bitartekari baten lana kontratatzen duela, momentu horretan gai honen inguruan, zegoen arazo bati aurre egiteko, bitartekariak ere momentu horretan argi azaltzen zuen saileko teknikari berri baten beharraz.

4. 2015. eko abuztuko batzordean. Gai hau mahai gainean jartzen da, plaza berri bat ezin da sortu udalean, horrela adierazten digu, gizarte baliabidetako teknikariak, legeak ez baitu ahalbideratzen, lanpostu honetako deialdi bat egiten da, eta urrian teknikari bat dugu sailean enpresa baten bitartez, urte beterako.

5. Urritik abendura arte, udazken oparoari aurre egiten diogu eta saileko diagnostikoa, DAFO. A egiten da eragile ezberdinekin.

6. Urte bukaeran eta Eusko Jaurlaritzako merkataritzako dirulaguntza baten bidez, Hirigune, Tolosak, bere saltokien dentsidadegatik, aukera du merkataritzaren plan estrategikoa egiteko, 2015 urtean zehar Euskadiko hiriburuetan egindakoa, plan estrategikoak, Perco, plangintzaren osagarri bat da eta Bai udalak eta Tolosa&cok erabakitzen dute egokia dela egiteak.

7. 2016- eko urtarrilean, Hiri ekonomiaren lan mahaia martxan jartzen da, merkataritza, turismo eta azoken eragileekin batera, mahai honek beste azpi mahai ditu: merkataritza, azoka bereziak, azokak, ostalaritza...esan behar dut, Tolosan,2006 urtean, sortzen dela merkataritza mahaia, Gipuzkoako merkataritza mahaia bultzatua. Eta urte luze hauetan martxan eta lanean egon dena.

8. 2016ko martxoan, Tolosako udalak, Tolosa&Corekin legealdi osorako akordio marko bat sinatzen du, lankidetzan eta elkarlanean oinarrituta, tokiko garapen ekonomikoaren alde.

9. Apirilean, Ikertalde enpresak hasten da Tolosako merkataritzako plan estrategikoa lantzen, hiru ardatz ezberdinak landuz: gune biziak, turismo eta merkataritzaren lotuta eta egun European martxan dauden lankidetzeta sistema berriak Tolosan nola egokitu aztertzen dute. Azterketa hau apiriletik urrira bitarte egin dira eragile ezberdinekin, lan dinamikak garatuz, 300 inkesta- ekarpen jaso dira, aurkeztua izan da parte hartu duten eragile ezberdinei, batzordekideei ere eta plan hau bere ekintza plana urtarrilean aurkeztuko da herritarrei.

10. Ekainean, Tolosako udala eta Euskomer, Euskadiko merkatarien konfederazio arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzen da, Giscom- datu bilketaren tresna bat da non Tolosaren jardura ekonomikoaren datuak jaso eta eguneratzen direnak, oso baliagarriak gure sailerako.

11. Uztaileko plenoan, kale salmenta eta espazio publikoaren ordenantzen eguneratzea eta aldaketak aurkezten da.

Hilabete honetan ere saileko teknikariaren balorazioa egiten da, kontratazioa urrian bukatzen bait delako, balorazio oso positiboa du, bai sailetik eta eragileetik eta momentu honetan legeak ez bait digu ahalbideratzen teknikariaren postua egonkortu, deialdi ireki bat egiten da berriz, urte bat gehi beste bat, irailetik teknikari berria sailean dago,

12. Uztailean ere Tolosa Merkat proiektua, Kale Nagusiko ekintzaile batek adierazten digu, bere negozioa ez dela bideragarria eta utzi nahi duela,

Urte luze honetan ere burubelarri egon gara gune biziak eta berriz proiektuarekin lehen adierazi dizuedan bezela lehentasunezkoak dira guretzat.

13. Herri txanponaren inguruan, proiektua Tolosa & Co aurkezten digu 2013-2014 urtean, guri interesgarria iruditzen zaigu, gure babesa ematen diegu nahiz eta garai horretan oposizioan egon eta 2015 ean elkarteak berak ez zuen argi ikusten, Oñati herrian ezarria zegoen... txanpon ezberdinak daude....

Hemen argitu nahi izan ditudan azalpen guzti hauek, batzordean jorratu dira, esan eta adierazi dizudan bezela garapen ekonomikoa gure lehentasuna da, hiri ekonomia, urte honetan sukaldetako lan guztiak egiten aritu gara eta aurrerantzean arituko gara ere, gogoz eta ilusioz, eta elkarlanerako prest nola ez EH bildu udal taldeari, elkarlanerako bada, Tolosako hiri ekonomia hazi arazi nahi dugulako.

Eskerrik asko"

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu) : "Ados, azaldu duzu urte eta erdian nola kudeatu duzuen departamentua, plangintzak martxan jarri, hausnartu. Beraz, zer proiektu jarri duzue martxan? Ez duzue proiekturik martxan jarri, hori da esan dudana, besterik gabe. Egia da, lanak egin dituzue, hemen zaudete egunero lanean. Baina urte eta erdia pasa da hausnartzen, plangintzak egiten, baina ez da proiekturik martxan jarri. Badirudi honek bai jartzen duela abiapuntua proiektuak martxan jartzeko. Eta ez egiteaz gain, hori aipatu nahi nuen, 2015ean martxan zaudelako hortxe gelditu ziren izozkailuan, horixe da. Bestela saiatu bai, baina aipatutako guztien artean zer da martxan jarri duzuen? Nik ulertu dudanaren arabera, plangintzak egin dituzue eta hausnartu. Abiatu gara, beraz, hemendik aurrera elkarlanean egiteko bidea badaukagu."

... Alkatea: "Puntuarekin amaitzeko, Merkataritzak Tolosan duen garrantzia agerikoa da, inork ez du zalantzan jartzen. Merkataritzak hiru hanka oso bereiztuak ditu: Eusko Jaurlaritza, Udala eta Tolosa & Co. Dirulaguntzak eman ahal izateko, lehen egin ez zen bezela, ordenantza beharrezkoa zen, hori da gaur onartzen duguna. Bi xehetasun aipatu nahi nituzke bi programaren aurrean. Berriz programa Eusko Jaurlaritzarena da eta ahalbideratzen du belaunaldi aldaketa. Berriz programarekin hartzen dira neurri zehatz batzuk laguntzeko belaunaldi aldaketa horretan, baina gaia oso konplejua da eta merkataritza

elkartearekin beraiekin sakontzen joan beharko dugu egon daitezkeen hutsune horiek bete ahal izateko. Kontua ez da partida ekonomiko bat ireki eta dirua jartzea, gauzak ez direlako bere kabuz sortzen, baizik eta lanketa bat egin behar da bere atzetik. Eta Gune Biziak programan kontua ez da saltoki eskaparateak apaintzea, baizik eta eskatzen duena da kaleen birgaitzea egitea eta horretarako erabateko elkarlana beharrezkoa da, bai Udalean eta, agian, Hirigintza departamentuak protagonismo berezia izan behar du, ez da aipandura soil bat. Bereiziki eta urte hauetan erabakia aipatzearen, gogora ekarri nahiko nituzke oso agerikoak direlako. Batetik, Tolosa&Co elkarteak daukan egoitza berria, egoitza egokiagoa du orain eta erreferente izan nahi duena. Merkataritza sail berria legealdi hasiera honetan jarri da abian eta hori sektorearen aldarrikapen bat izan da. Lan mahaia hiriko ekonomiko kontzeptu hori barneratuta badaukana Nereak aipatu duen modura. Aipatu nahi nituzke ere Elkarteak badauzkala jada proiektu estrategikoak, oso interesgarriak izango direnak Tolosako Merkataritzarako, zein Udalak ematen dion babes guztia eta behar duen ekarpen ekonomikoa. Plan estrategikoak bereiziki du garrantzia. Kontua ez da bat-batekotasunean lanean hastea, baizik eta oso oinarrizkoa da plan estrategiko hori burutzea. Eta horretarako denbora hartu behar bada, hartu egin behar da. Plan estrategiko horretan hartu dute parte eta, Nereak aipatu duen bezala, hirurehun ekarpen baino gehiago dauzka bere horretan barneratuta. Beraz, badago lana egiteko, aukera paregabea elkarrekin sektorearen alde egiteko, egoerak eskatzen duelako, sektoreak eskatzen duelako eta baita gure lana ere badelako.”

Tolosako Merkataritzako Sektorea Biziberritzeko helburua duten diru-laguntzen programa arautzeko ordenantzaren berri eman da.

Ordenantza honen xedea hau da, Tolosako enpresen transmisioak lagundu eta merkataritzako eremuak erakargarri eta atseginagoak egitea bi programa hauen bitartez, Berriz Tolosa eta Gune Biziak.

Hori horrela, proposamena aztertu eta Merkataritza, Feriak eta Turismo batzordeak 2016ko azaroaren 10eko diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.-Behin behineko onarpena ematea Merkataritzako sektore biziberritzeko diru-laguntzen programak arautzen dituen ordenantzari eta proiektua argitaratzea web orrian.

Bigarrena.-Jendaurrean jartzea hogeita hamar lan egunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.-Aurreko atalean aipatutako epearen barruan ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkeztzen, behin-betiko onartutzat jotzea.

5. Tolosako Udalaren kreditu aldaketarako 5/2016 eta 6/2016 espedienteak jakinaraztea.

5. Dar cuenta de la modificación de créditos 5/2016 y 6/2016 del Ayuntamiento de Tolosa.

Alkateak azaldu du puntu honetan Kreditu transferentziak partida batetik bestera, murrizketak dira 29255 € beraz gehikuntzak dira kopuru berdinean eta kontua da partida batetik bestera mugitzen direla kopuruak.

Bigarrena, sarrera finalistak dira. Jaso ditugun dirulaguntzen diru ekarpenak dira. Kopuruarengatik nabarmentzekoa da dirulaguntzak enpleguaren sustapenean Eskualdeko Enplegua plana egiteko Lanbide bitartez jasotzen dugun diru laguntza

Idazkariak 2016/2060 Alkatearen dekretuaren berri eman du, Udalaren kreditu aldaketarako 6/2016 espedientea. Hitzez hitz honela dio:

**“ALKATEAREN DEKRETUA
2016/2060**

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Tolosako Udal honen 2016ko aurrekontuaren barnean kreditu transferentzien erregimenaren bidez 5/2016 kreditu aldaketarako espedientea izapidetzen ari da

Kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera:

- *aipatutako espediente bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.*
- *transferentziak, programa talde baten barruko transferentziak dira, edo talde ezberdinen artekoak badira, jatorrizko eta destinoko programa taldeetako aldaketen diferentzia metatuk aurreikusitako hasierako kontsignazioen %25 baino txikiagoak dira. Honen arabera, espediente onartzeko eskumena Alkateak dauka, aipatutako Foru Arauaren 29. artikuluen arabera.*

Beraz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den ondorengo partidakako xehetasunarekin:*

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.11.22

<i>Partida</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Murrizketa</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
1 0900.220.00.335.20 2016	BULEGO MATERIALA. EUSKALTEGIA	5.000,00	350,00	4.650,00
1 0300.224.99.920.00 2016	BESTELAKO ARRISKUEN ASEGURU PRIMAK.ADM.O	75.000,00	8.500,00	66.500,00
1 0800.481.01.334.10 2016	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. KULTURA	136.000,00	11.880,00	124.120,00
1 0800.481.01.337.20 2016	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.GAZTERIA	18.000,00	4.000,00	14.000,00
1 0900.481.01.335.10 2016	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.EUSKARA ZERB	249.830,00	1.900,00	247.930,00
1 1000.481.01.341.00 2016	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.KIROLAREN SU	187.100,00	2.100,00	185.000,00
1 1400.481.01.231.60 2016	IRABAZI ASMORIK GABEKO E.BERDINTASUNA	5.000,00	525,00	4.475,00
GUZTIRA		675.930,00	29.255,00	646.675,00

<i>Partida (*)</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gehikuntza</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
1 0800.226.06.337.20 2016	JARDUERA SOZIO KULTURALAK.GAZTERIA	131.900,00	12.500,00	144.400,00
1 0900.226.06.335.20 2016	JARD.SOZIO KULTURALAK.EUSKALTEGIA	1.000,00	350,00	1.350,00
1 0800.226.06.334.10 2016	JARD.SOZIO KULTURALAK.KULTURAREN SUSTAPE	185.065,00	11.880,00	196.945,00
1 1000.226.06.341.00 2016	JARD.SOZIO KULTURALAK.KIROLAREN SUSTAPEN	35.900,00	2.100,00	38.000,00
1 1100.226.06.431.10 2016	JARD.SOZIO KULTURALAK.FERIA ETA AZOKAK	136.700,00	1.900,00	138.600,00
1 1400.226.06.231.60 2016	JARD.SOZIO- KULTURAK.BERDINTASUNA	102.600,00	525,00	103.125,00
GUZTIRA		593.165,00	29.255,00	622.420,00

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

Tolosa, 2016ko azaroaren 15ean”

Jarraian, Udalaren kreditu aldakaetarako 6/2016 espendienteko dekretuaren berri eman zaie udalbatzarkideei. Hitzez hitz honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

2016/ 2061

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera:

- aipatutako espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.
- Kredituak gaitzen dituzten sarrerak sarrera finalistak dira. Honen arabera, espedientea onartzeko eskumena Alkateak dauka, aipatutako Foru Arauaren 31.5 artikuluaaren arabera.

Beraz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den ondorengo partidakako xehetasunarekin:

2016ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 1400.226.06.231.60 2016	JARD.SOZIO-KULTURAK.BERDINTASUNA	7.040,00
1 0100.226.06.924.00 2016	JARD.SOZIO-KULTU.PARTAIDETZA	41.796,00
1 0300.227.11.920.20 2016	INFORMATIKA.ZERBITZUAK.INFORMATIKA	4.533,00
1 1100.471.01.241.00 2016	DIRULAGUNTZAK. ENPLEGUAREN SUSTAPENA.	342.960,23
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		396.329,23

2016ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod .	Sarreren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 420.99 2016	DIPUTAZIOAREN BESTE TRASNFEREN.ARRUNTAK	53.369,00
a	2 410.02 2016	EUSKO JAURLARITZAREN ENPR.TRANSE.ARRUNTA	342.960,23
FINANTZAKETA GUZTIRA			396.329,23

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitelza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Tolosa, 2016ko azaroaren 15ean

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6. Tolosako Udalaren kreditu aldaketarako 7/2016 espedientea hasiera batez onartzea.

6. Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 7/2016 del Ayuntamiento de Tolosa.

Partehatzeak:

- ... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria (EAJ-PNV): “Hemen azalduko ditugun kreditu gehigarriak gerakinetatik finantzatzen dira eta azaroaren 17ko Ogasun batzordean azaldu genituen. Kasu honetan mugitzen den diru kopurua 286.000 euro dira. Horietatik nabarmen aipatuko nituzkeenak dira: 16.000 €ko inpakto urbanistikoaren azterketarako. Hondakinen tratamendua, 50 000 €. Aipatu ere, 8.000 euro jarriko ditugula aurren WIFI publikoa jartzeko eraikin publikoetan, Kultur etxean, Musika eskola, ea. Aipatzekoa ere 6.000 €o Tolargiri akzioak erosteko, eta beste 15.000€ Gizarte zerbitzuetako atea eraberritzeko erabiliko dira, erabiltzaileak askotan aldarrikatutakoa, eta Iturriza Jauregiaren erosketarako erabiliko ditugun 140.000 euro, lehenengo ordainketa egiteko.
- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): “Aipatu den bezala jakinarazi zaigu 5. eta 6. kreditu aldaketaren espedientea eta 7. bozkatu behar dugu. Kontua beste osoko bilkuretan aipatu duguna, azkenean eredu arteko desberdintasuna da. Zuek nolabait bat-batekotasunez zoazte, behararen arabera dagozkion kreditu aldaketak egiten eta, gure ustez, egokiagoa da aurrekontuak zehaztasun handiagorekin egitea, bere proiektuaren islada izatea. Esan bezala da eredu kontua. Ez gaude horrekin bat, besterik gabe. Horretaz gain, poztekoa da herri ondarearen egin behar duzuen inbertsio hori. Ondo ikusten dugu, espero dugu edukiz

betetzea. Bai aipatu prozedura aldetik Iturriza jauregiaren erosketan eta, baita ere, Ogasun batzordeari dagokionean. Iturriza Jauregia erosi behar dela EHBilduko kideak batzordean jakin genuen, esanez, tratua egin dugu eta hau dago dagoena. Eta 48 ordu epearekin hiru kreditu aldaketa aztertu behar izan ditugu. Prozedura aldetik eskertuko genuke denbora gehixagoarekin ibiltzea informazio helarazterakoan. Hala ere, kreditu aldaketa honen aurka bozkatu beharrean gaude, ezin baitugu onartu lehen aipatu den Hondakinen tratamenduaren partidan 50.000€tako igoera hori. Batzordean aipatu zen igoera hori zela GHKko tasen igoeraren ondorioz. Azkeneko Osoko bilkuran, hemen ordenantza eztabaidatzen ari ginenean, aipatzen nuen ordenantzetan ere bazuela eragina GHKk prezioak igotzea; azkenean Mankomunitatearen fakturan eragina du eta herritarrok kostu horren arabera ordaindu behar dugu. Baina, berriro diot, berdina kasu honetan, GHK erabaki zuelako, EAJ eta PSE-EE-k, prezio batzuk zehaztea hondakinen tratamenduan. Horren ondorioz Mankomunitateak prezio hori ordaindu behar du eta, horren ondorioz, Tolosako Udalak eta guk, herritarrok. Gure tasetan eragina du eta orain ere aurrekontuetan herritarron ekarpenetatik datozeelako eragina dute. Ezin dugu kreditu aldaketa hau onartu ez bagatuz bat kudeaketa horrekin.”

... Alkatea: “Bereziki bi kopuru handi dira kreditu aldaketan agertzen direnak eta erantzutearren Lorek egin dituen adierazpen horiei: Aurreko plenoan tasak onartu zirenean %5eko igoera hori egozten zenion GHKko igoerari eta nik uste dut ez zela zuzena eta pentsatzen dut, oraindik ere, %5eko igoera hori ez dela arrazoi horrengatik. Egia da GHKko tasak handitu direla, baina eman duzun arrazoiarekin ez nator bat. Gertatzen da EHBilduk kudeatu duenean GHK, aurreko legegaldi horretan, ez dela hondakinak kudeatzeko azpiegiturarik egin. Orduan, legegaldi horretan, itxi zen Zarauzko zabortegia. Itxi berria dira ere Sasietakoa eta, Lapatx, eta gelditzen den zabortegi publiko bakarra Bergarakoa da. Zabortegiak itxi dira alternatibarik gabe. Hondakinak Kantabriara garraiatu behar dira eta dagoen gain koste hori, %45 da, gutxi-gora behera, jaurtiketatik eta garraiogatik dauka koste gehigarri hori. Hori da GHKk kostea handitzearen arrazoiak eta, noski, eragina dauka Eskualde guztietan eta Udaletxe bakoitzean. Beste kopuru handia Iturriza jauregia eskuratzeko da. Iturriza Jauregia korreo kalean dagoen erdi aroko eraikina eta izendatuta dago kultur ondasun bezala, Santa Maria eliza, Idiakenez jauregia eta Atodo jauregia eta baita Gaztelako atea bezala. Erosketaren arrazoi nagusia da horrelako eraikinak mantentzea zaila dela jabeentzat daukaten babes mailarengatik. Ezin dira babes maila horrengatik aldaketa garrantzitsuak egin, ez fatxadari, ez distribuzioari dagokionez ere, eta, ondorioz, ez dira oso egokiak etxebizitza erabilera izateko. Beraz, eraikin horiek izaera publikoko erakinak dira. Dakizuenez, datorren urtean azpiegituren berrantolaketakoko azterketa bat egingo da eta Iturriza Jauregia ere azterketa antolaketa horretan sartuko da, erabilera plangintza hori egin ahal izateko. Gainera, ahalbideratuko du Tolosako planeamenduan helburu bezala den patio irekiera hori. Alde Zaharrean patioak irekitzea planteamenduan aspaldiko aurreikuspen da. Kale Nagusiko 1go eta 2ko etxebizitzetako argitasuna eta bentilazioa emango dio, ordenazioz kanpo dagoen anexoak kentzeko aukera izango dugulako eraikina eskuratzeko dugunean. Aukera ere izango dugu, Letxuga kaleko ordenazioz kanpo dagoen eremua kentzeko, Garikano sagardotegia atzealdean dagoen anexo hori. Uste dut erabaki on bat dela. Jakinarazi zitzaizuen aukera izan zenean eta horiek dira bi kopuru inportanteenak kreditu aldaketa honetan, eta hori da argitu nahi nuena.

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.11.22

Tolosako Udalaren 2016ko Aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez izapidetzen den espedientea tramitatzen ari da.

Kreditu aldaketarako proposamena hau da:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.211.01.152.11 2016	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ETXEBIZITZAK	11.000,00	5.000,00	16.000,00
1 1000.226.06.341.00 2016	JARD.SOZIO KULTURALAK. KIROLAREN SUSTAPEN	38.000,00	3.000,00	41.000,00
1 1100.226.06.431.10 2016	JARD.SOZIO KULTURALAK.FERIA ETA AZOKAK	138.600,00	2.100,00	140.700,00
1 0100.226.99.912.00 2016	BESTE ZENBAIT GASTU.GOVERNU ORGANOAK	36.000,00	2.100,00	38.100,00
1 0600.227.07.151.10 2016	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA	98.500,00	16.000,00	114.500,00
1 0700.227.07.153.00 2016	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. OBRATAKO ADM	81.000,00	18.000,00	99.000,00
1 0700.421.01.162.30 2016	MANKOMUNITATEEI. HONDAKINEN TRATAMENDUA	170.000,00	50.000,00	220.000,00
1 0700.622.02.920.31 2016	ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK	579.000,00	8.000,00	587.000,00
1 0700.629.01.920.31 2016	Bestelako inbertsioak. Eraikin publikoak	22.000,00	7.500,00	29.500,00
1 0200.853.01.931.00 2016	AKZIOAK ESKURATZEA	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0300.622.02.920.30 2016	INBERTSIOAK. UDALETXEKO OBRAK.	0,00	15.000,00	15.000,00
1 0700.682.01.920.31 2016	ONDARE ONDASUNETAKO ERAIKINAK	0,00	140.000,00	140.000,00
1 0700.227.07.171.00 2016	AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. PARKE ETA LORATEGIAK	459.000,00	11.000,00	470.000,00
1 0700.421.01.431.40 2016	EKARPENA TOLOSAKO HILTEGIARI	7.000,00	2.300,00	9.300,00
GUZTIRA		1.640.100,00	286.000,00	1.926.100,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2016	ALTXORTEKIKO GERAKINA	286.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			286.000,00

Beraz, 7/2016 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igοeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekursoak aztertu ondoren.

Kontuan harturik, gastuaren premiazko beharra nahikoa egiaztatzen dela, hala nola igοera horiek finantzatzen dituzten errekursoen efektibotasuna, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuen kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz kontuhartzaileak jaulki duen txostena, non agerian dagoen espedientearen instrukzioa indarrean dagoen legezko arautegiarekin bat datorrela, eta Ogasun batzordeak 2016ko azaroaren 17an jaulkitako diktamena, Udalbatzak, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE(1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (6) alderdiaren aurkako botoekin, gehiengoz

ERABAKI DU

Lehena.-Tolosako Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 7/2016 kreditu aldaketa, 286.000 eurokoa, haseraz onartzea

Bigarrena.-Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

Jarraian, Kontuhartzaileak kreditu aldaketan espedientei buruz egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

"Administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 7/2016 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua, baina ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelari ezarritakoan jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek ere plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan gastu araua bete ahal izateko.

Dena den, 13/2014 Foru Arauaren 2. artikulua 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan egindako aldaketari esker, gastu arau betetzen ez duten entitateek, planaren orde, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzarrari, kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- a) aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.*
- b) urteko zor publikoko helburua betetzea.*
- c) urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabiipena izatea.*

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzeko den bi entitateetan kasuan.

Bestalde, 2016ko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.

Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udalaren 7/2016 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak 4.685.158,49 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 7/2016 kreditu aldaketaren espedientea finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 286.000,00 euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak hasierako 1.439.053 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren orde Udalbatzari komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Gastuaren araua

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariozioa % 26,65 da, 7/2016 kreditu aldaketarako espedientearen ondoren.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA	
a1	2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	28.123.844,11
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2015ko interesak	115.673,59
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	4.770.407,57
a=a1+a2-a3-a4	2015ko gastu konputagarria	23.237.762,95
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	34.914.324,10
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2016ko Interesak	164.456,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	5.318.291,61
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2016ko gastu konputagarria	29.431.576,49
c=(b/a-1) *100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	% 26,65

¹ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

² Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

Kasu honetan ere, plan ekonomiko-finantzarioaren ordez Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da, hain zuzen 3.934.728,05 eurokoa, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzen den bi entitateetan

kasuan: Udalaren kasuan 8.287.262,62 euro eta lurreamendi egoitzan 296.721,24 euro.

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2016ko zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan zehazten dirá datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 7/2016
ZOR BIZIA 2016/12/31an	8.468.615
SARRERAARRUNTAK 2015eko likidazioa	29.450.252,41
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	28,82%
MUGA	80,00%

Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dirá sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea da.

Hirugarren baldintza

Administrazio izaera duten entitateen behin-betiko aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Dena den, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da, lehen adierazi dugun moduan:

Diruzaintza gerakinaren eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 1.031.253,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 7/2016 kreditu aldaketa, 286.000,00 eurokoa izan da, guztira diruzaintza gerakinaren bidez.

Finanziatzen diren gastuen kopuru handiena, 140.000eurokoa eraikin bat erosteko erabiliko da, eta bai hori, bai besteek ez dute administrazio izaera duten entitateen finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan zen 2015eko aurrekontuaren likidazioan (3.934.728,05 euro), kontuak bateratu ondoren. Eta 2016ko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2016ko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 7/2016 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua betetzen ez baditu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra déla eta aipatutako urraketaren ondorioz ez déla konprometituta geratzen”.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

Lore Agirre Zipitria, EHBildu alderdiko zinegotzia irten egin da.

7. Iurreamendi Egoitzaren kreditu aldaketarako 2/2016 espedientea hasiera batez onartzea.

7. Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 2/2016 de la Residencia Iurreamendi.

• **Iurramendi Egoitzaren kreditu aldaketarako 1/2016 espedientea jakinaraztea.**

Idazkariak 2016/2072 Alkatearen dekretuaren berri eman du, Iurramendi egoitzaren kreditu aldaketarako 1/2016 espedientea. Hitzez hitz honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA
2016/ 2072

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Iurreamendi egoitzaren 2016ko aurrekontuaren barnean kreditu transferentzien erregimenaren bidez 1/2016 kreditu aldaketarako espedientea izapidetzen ari da

Kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera:

- aipatutako espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.
- transferentziak, programa talde baten barrukoak dira. Honen arabera, espedientea onartzeko eskumena Alkateak dauka, aipatutako Foru Arauaren 29. artikuluaaren arabera.

Beraz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den ondorengo partidakako xehetasunarekin:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.130.231.91.01 2016	PERTSONAL LABORAL FINKOAREN ORDAINSARIAK	1.000.100,00	30.787,11	969.312,89
	GUZTIRA	1.000.100,00	30.787,11	969.312,89

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.211.231.91.01 2016	ERAIKINAREN MANTENIMENDUA	21.100,00	9.000,00	30.100,00
1 0000.212.231.91.01 2016	MAKIN. INSTAL. ETA TRESNERI. MANTENIM.	44.000,00	6.000,00	50.000,00
1 0000.220.231.91.01 2016	BULEGO MATERIALA	7.000,00	576,39	7.576,39
1 0000.221.231.91.01 2016	ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA	70.000,00	5.000,00	75.000,00
1 0000.221.231.91.06 2016	JANARIAK	220.000,00	10.000,00	230.000,00
1 0000.221.231.91.09 2016	GARBIKETA PRODUKTUAK	66.789,28	210,72	67.000,00
	GUZTIRA	428.889,28	30.787,11	459.676,39

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.11.22

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

Tolosa, 2016ko azaroaren 15ean

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- **Iurreamendi Egoitzaren kreditu aldaketarako 2/2016 espedientea hasiera batez onartzea**

2016ko ekitaldiari dagokion Iurreamendi Egoitzaren aurrekontuaren kreditu aldaketarako 2/2016 espedientea aztertu da.

Kreditu aldaketarako proposamena hau da:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.227.231.91.07 2016	ESTUDIOAK ETA LAN TEKNIKOAK	2.732.900,00	131.450,00	2.864.350,00
1 0000.221.231.91.09 2016	GARBIKETA PRODUKTUAK	55.210,72	11.789,28	67.000,00
	GUZTIRA	2.788.110,72	143.239,28	2.931.350,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.231.91.01 2016	APLICACION FINANC. CREDITOS ADICIONALES	143.239,28
	FINANTZAKETA GUZTIRA		143.239,28

Beraz, 2/2016 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekurtsioak aztertu ondoren, eta kontuan izanik gastuaren premiazko beharra eta igoerek finantzatzen dituzten errekurtsioen efektibotasuna nahikoa egiaztatzen

dela, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuaren kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz Kontuhartzaileak egindako txostena, non adierazten den aipatutako espedientea egokitzen dela legezko araudira, baina ez duela osotasunean betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

Hortaz, Ogasun batzordeak 2016ko azaroaren 17an jaulkitako aldeko diktamena azterturik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- lurreamendi egoitzaren 2016ko aurrekontuari dagokion 2/2016 kreditu aldaketa. 143.239,28 eurokoa, haseraz onartzea.

Bigarrena.- Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

8. Konpromiso kredituaren espedientea hasiera batez onartzea.

8. Aprobación inicial del expediente del crédito de compromiso.

Tolosako Udalak Iturriza etxearen 5 finka erosteko interesa du. Erosketaren prezioa, guztira 419.100,00 eurokoa da, honela banatuta:

Finca 13.678	104.750
Finca 13.679	31.125
Finca 13.681	73.625
Finca 13.682	73.625
Finca 13.683	84.000
Finca 13.684	51.975

Erosketaren ordainketa ondorengo hiru zatitan banatu nahi da:

2016an	140.000,00
2017ko uztailaren 31n	140.000,00
2018ko uztailaren 31n	139.100,00

2016ko gastuari dagokionean, 7/2016 kreditu aldaketarako espedienteak 140.000,00 euroko kreditua aurreikusten du, 0700.682.01.920.31 partidan.

2017 eta 2018ko gastuei dagokienean, konpromiso kreditu bat onartu behar da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2002 Foru Arauaren 22. artikulua arabera, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso kredituen zenbateko metatua ezin du izan likidatutako azken ekitaldiko sarrera

arrunten % 25 baino gehiago.

2017ko konpromiso kredituak sarrera arrunten % 1,08 dira eta 2017koak %0,56. Beraz, 21/2002 Foru Arauaren 22.artikuluak jarritako baldintzak betetzen ditu.

Beraz, hau kontutan izanik eta Ogasun Batzordeak 2016ko azaroaren 17an jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Azalpen zatian adierazitako konpromiso kredituaren espedientea onartzea.

Bigarrena.- Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

9. Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta, Udal adierazpena.

9. Declaración Institucional con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres.

Maite Ruiz de Egilaz Ezkiagak Berdintasuna batzordeko lehendakariak (EAJ-PNV) adierazpena irakurri du.

Adierazpenak hitzez hitz honela dio:

“AZAROAREN 25a, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNAren ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25ean “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” dela-eta, Tolosako Udalak bere gaitzespen sendoa erakusten du indarkeria sexistako adierazpen ororen aurrean. Fenomeno hau oso korapilatsua da, eta errotuta dago emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritutako botere-harremanetan.

Horregatik esaten dugu desorekak indarrean jarraitzen duen bitartean indarkeria sexista hor egongo dela, botere-harreman desorekatu horiei eustea delako, hain zuzen, indarkeria horren funtsa. Hortaz, emakumea izate hutsagatik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu benetako berdintasunik lortuko.

Konpromiso instituzionalak, Mugimendu Feministak, eraso sexistak desagerrarazteko kanpainen, eta emakumeen segurtasuna hobetzeko neurri prebentiboek berekin ekarri dute inflexio—puntu bat festa-esparruko eraso sexisten aurkako borrokan eta, ondorio gisa,

erakundeetako ordezkarien agerpen publikoa eta herritarren gaitzespena ekarri dituzte saritzat.

Baina ez dezagun ahaztu emakumeek ez dutela indarkeria esparru horretan bakarrik nozitzen, ezta komunikabideetan intentsitate handieneko gertakariak bakarrik azaltzen direla ere. Jarraitu behar dugu arreta jartzen eta ikustarazten, batetik, soutilagoak eta naturalizatuagoak izanda gutxien nabarmentzen diren indarkeria-era desberdinak eta, bestetik, genero-eskema tradizionalarekin hausten duten gorputzen aurka erabiltzen den indarkeria.

Beraz, indarkeria sexista gainditzeko lanean jarraitu behar dugu, maskulinitate tradizionalak ezabatu eta deseginez, adostasun berriak eraikiz, enpatiatik, sororitatetik, aukeratzeko askatasunetik, segurtasunetik, arduratik, berdintasunetik eta elkarrekikotasunetik.

Tolosako Udalbatzak, horrexegatik berresten du bere jarrera emakumeei indarkeria sexistarik gabe bizitzeko duten eskubidea berma dakien, eta konpromiso zehatz hauek hartzen ditu:

- 2017ko aurrekontuetan berdintasun-partida handitzea.
- Kanpaina publikoak sustatzea, indarkeria zein bazterketa sexistaren edozein agerpenaren aurrean hiritarren kontzientzia aktibo bat eta giro ez-permisibo bat sortzeko, komunikazioa landuz eta erabilera ez sexista eta errespetuzkoa sustatuz sare sozialetan: whatsapp, facebook, twitter, eta abarretan.
- Aurrera egitea balio-aldaketa batean, indarkeria sexista har dadin gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazgarririk handientzat, eta horretarako Udalaren berdintasun-politikak indartzea, Tolosako talde feministarekin eta eragile sozialekin elkarlanean, eraso sexisten kontrako protokoloa indartuz, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz. Eta ildo horretan, bermatzea, Berdintasunerako III Planean, bereziki, Jabetza Eskolan jasotako neurrien garapen, segimendu eta ebaluazioan behar diren giza- eta diru-baliabideak.
- Begirada eta ezagupena zabaltzea indarkeria, beraren konzeptualizazio eta agerraldi desberdinen gainean, emakumeen aurkako indarkeriaren era desberdinak ikustarazteko (mikroindarkeriak, emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako, eta abar.). Orobat gune fisiko eta sinbolikoetan genero-eskema tradizionalarekin hausten duten gorputzen aurkako indarkeria mota guztien gainean (lesbiana, gay, intersex, transexual, transgenero, eta abarrak).
- Berrestea mugimendu feministarekin batera hartzen dugun konpromisoa, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat eraikitze bidean, berdintasunak indarkeria deusezteko balio baitu; eta sortzea gizon gazte eta helduei zuzendutako gogoetarako esparruak eredu tradizional maskulinoa zalantzan jartzeko eta jarrera eta portaera berdintasunezkoagoak garatzeko, eta sustatzea gizonak indarkeriaren deuseztapenean jarrera eraginkorrako eta konprometituagoaz inplikatzera bultzatzen dituzten balio berriak.
- Indartzen jarraitzea, batetik, ikastetxetako ikasleei zuzendutako koedukazio-proiektua eta, bestetik, Beldur Barik eta Hi Haiz, Hi! Programak zeinetan, eraso-mota guztiak prebenitzeko helburuaz, hauek sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea, nesken jabeakuntza eta mutilen papera berdintasunezko harremanen alde.
- Eta azkenik, Tolosako herria gonbidatzea Mugimendu Feministak eta Udalak programatutako jardueretan eta ekintzetan parte hartzerat.

Jarraian, adierazpena bozkatu egin da eta, aho batez, **onartu da**.

- - - - -

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Denon artean lan egiten jarraitu behar dugu indarkeri sexista kentzeko eta gizartetik erabat desagertzeko, eta horretarako gure eskuetan dagoen guztia egiten jarraitu behar dugu hau berriz gertatu ez dadin.”*
- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Esan den bezala adierazpen hau onartu egingo dugu. Elkarlanean egon gara eta guk ere EHBildutik gure ekarpenekin aberastu nahi izan dugu hasieran zegoen testua. Esandako guztiarekin ados gaude eta arreta jartze aldera gogoratu nahiko genuke gaur egun hitz egiten dugula konpromiso instituzionalari buruz, komunikabideak eta abar, baina uste dugu juxtua dela onartzea Mugimendu feministak hasiera hasieratik, agian askotan era ez oso ulertuan gizartearen aldetik egindako borroka. Beraiek saiatu ziren eta beraiei zor zaie oso neurri handian biolentzia matxista arlo pribatuetik publikora pasatzea, agenda politikoan sartzea, eta hor salto izugarria ematen da; eta bai aipatuko nuke salto hori egin izana beraiei zor zaiela. Garrantzizkoa iruditzen zaigu adierazpen honetan esaten den bezala aurrekontuekin konpromisoa hartzea hor ikusten baita benetan apustua dagoen edo ez. Bi puntuak garrantzizkoak direla eta ondoren esan hau “berriz ez gertatzea”, Cristian, esatea, ez dakit zenbat emakume daramagun erahilda eta denuntzia pila bat dira, lakra hau zoritxarrez ez zait iruditzen egun batetik bestera konponduko denik. Baina aipatu den bezala begiradaren garrantzia oso erabakiorra da. Begiratu beharra dago, betaurreko morearekin esaten da, baina ez da bat ere pasa behar horrelakoetan. Beraz, alde horretan planak dauzkagu, protokoloa jarraitzen da eta bide horretan jarraitzeko gure babes guztia hor dago.”*
- ... Alkatea: *“Egun hau emakumea izanagatik eragindako indarkeriaren inguruan onartu zen bere garaian, azaroaren 25ean, gaitzesteko nahi den egoera. Egoera horrek oinarria du sexu bereizkerian eta emakumea helburu duen edozein indarkeri ekintza da emakumeari kalte edo sufrimendu fisiko sexual edo psikologikoa eragiten diona. Munduan, behin baino gehiagoetan aipatu izan dugu pleno honetan, urratuena den giza-eskubidea da. Egoera honi gizarteak erantzun azkarra bezain irmoa eman behar dio. Egia da azken uda honetan bisualizatu egin dela erantzun irmo eta azkar hori, tamalez gertatu diren hainbat gertakizunen ondoren: eragileen partetik, gizartearen aldetik, mugimendu feministaren partetik, baina baita administrazioaren aldetik, eta hori da guri tokatzen zaiguna. Gu udaletxean gaude eta gertaera hauei aurre egiteko gure agenda politikoan barneratu behar da egoera hauek baditugula gure herrian ere eta neurri zehatzak hartu behar direla horiei aurre egiteko. Balorean jarri nahiko nuke Tolosako protokolo mahaiak egoera konkretu hauei aurre egiteko burutzen duen lana, non zehazten diren zeintzuk diren udal zerbitzuen betebeharrak gai honekiko. Dakizuenez, talde interdisziplinari bat da, partaideak dira Lanbide, Gizarte Larrialditako Foru zerbitzua, Ertzaintza, Tolosako Osasun Zentroa, bilgune feminista, Tolosaldeako Migrazio Teknikaria, Arras elkarteko abokatua eta Tolosako udaleko alkatea, Udaltzaingoa, Gizarte langilea eta baita Berdintasun teknikaria ere. Bere helburua da kasuen jarraipena eta koordinazioa egokia egitea. Aipatu nahi nituzke aurten landu diren bi gaiak, beste batzuen artean, garrantzia berezia duelako: urgentziazko arreta sexu eraso kasuetarako fluxograma bat lantzea da eta hori aurrera paso bat izan da, tamalez gertatzen diren egoera hauek egoki artatzeko. Eta baita momentu honetan lantzen ari dena*

Punto de Encuentro delako hori edo Arreta Puntua. Gai hauek eragina zuzena dutelako pertsonen bizitzan duten garrantziarengatik. Inportantea den bezalaxe lehen aipatutako erantzun irmo hori ematea. Alde horretatik balioan jarri nahiko nuke baita ere, aurten ateratako kartelan erakutsi delako herri honek gai honi eman nahi dion erantzuna erabatekoa dela. Poztekoa da eta azpimarratzekoa. Eskerrak eman nahi nizkieke, gainera, herri honetako parte hartu duten hainbat eragileei, eskatu zaienean publikoko salaketa hori egiteko prest ote zeuden, inork ez duelako inongo zalantzarik izan. Beraz hori da herri honek eman nahi dion erantzuna eta hori da Udal honek eman behar diona herritarrekin bat eginez.”

10. Abenduaren 3an Euskararen eguna dela eta, Adierazpen instituzionala.

10. Declaración Institucional con motivo de la celebración del Día Internacional del Euskera el 3 de diciembre.

Partehartzeak:

- ... Iñaki Irabazabalbeita Fernandez (EHBildu): “Egia da proposamen adierazpenean jaso bezala euskarak azken berrogeita hamar urteetan aldaketa kualitatibo handia jaso duela, bai hizkuntzaren baliabide ikuspegiaren aldetik, baita gizartean momentu honetan duen paperengatik eta gizartean duen ospearengatik ere. Eta hori bereziki bizi garen komunitate autonomo honetan. Badakigu Iparraldean eta Nafarroan egoera bestelakoa dela, gauza batzuetan behinik behin. Berriki publikatu diren inkesta soziolinguistikoaren datuak hori adierazten dute. Gero eta gehiagok dute gaitasuna euskaraz aritzeko. Gazteenak dira euskaldunenak. Beste datu inportantea ere badago: euskara etxetik ez duten guraso gazteak transmititzen ari dira hizkuntza, berea egin dute euskara. Hori inportantea da. Gure ikuspegitik erabileran dago gakoa momentu honetan. Euskararen egunaren ospakizunaren aurrean, horretan insistitu behar dugu, euskara erabiltzeko dela. Datu horiek ikusita, berrogeita hamar urteetan euskarak garatu ditun baliabideak, lortu duen ospea kontutan izanda, bizi garen komunitate autonomo honetan jauzi kualitatiboaren emateko moduan gaude, hizkuntza normalizazioaren urrats sendoagoak emanez. Esaterako, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko mekanismoetan sakontzea, bai arlo pribatuan, bai publikoan. Benetan Euskararen ofizialtasun maila gaztelerak duen ofizialtasun mailaren parekoa izan dadin . Eta baditugu horretarako aitzakiak, datuak, borondate politikoaz eta gizarte honen borondateaz aparte. Bi urte barru Euskaltzaindiak ehun urte egingo ditu. Data inportantea izan daiteke aipatu ditugun urrats sendo hauek emateko. Euskara Batuak berrogeita hamar urte beteko ditu. Tolosan zerbait sendoagoa beharko genuke, zerbait erakusleagoa. Eta ikuspen horietatik adierazpena ahula gelditzen da. Ulertzen dugu ahultasun hori Tolosatik. Ahuldaden horren arrazoia ulertzen dugu. Bai UEMAK eta baita EUDELEk ere bultzatu dutenean ahalik eta jende gehien bildu nahi izan nahi dituela, bai euskararekin epel , apur bat uzkur dabiltzanak ere bildu nahi izan dituela. Horren balio hori onartzen dugu eta horregatik alde bozkatuko dugu. Baina gure ustez, Tolosan, euskararen egunean, adierazpen sendoago egin beharko genuke udaletxe honetan.”
- ... Jokin Azkue Arrastoa, Hizkuntza Politika eta Hezkuntzako batzordeburua (EAJ-PNV): “Testu honetan adierazi nahi da bakoitzak bere neurrian bere eremutik egin duenarengatik euskara dagoela dagoen lekuan. Eta ez dagoela orain dela berrogeita hamar urte bezala etxearen eremuan eta hortik kanpo ez zuela inolako lekurik. Baita ere zeuden zalantzak, bat baino gehiagok pentsatuz euskara berak ez zuela baliorik beste eremuetan erabiltzeko. Bide hori

gaindituta dago, hortik gora goaz; ez gaude autokonplazentzian erortzeko, asko dago egiteko. Euskararen biziraupena esan daiteke bermatuta dagoela %80 hamasei urteko beherakoek elebidunak dira. 16 eta 24 urte dituen artekoetan ere ia %70ak euskaldunak dira. Badakigu urte pasa ahala bermatuko dugula euskararen biziraupena. Erronka daukagu bizindarrean, euskararen erabileran esparru ezberdinetan. Euskarak gero eta indar gehiago du eremu formaletan, Administrazioan, Hezkuntzan, Osakidetzan nahiz eta ahul egon gora doa. Baina badago zer egin hainbat esparruetan, lan esparruan, lanbide heziketan, asko dago egiteko. Ezin dugu komodidade horrekin gelditu, baizik eta bizindar horretan asko daukagu egiteko. Pentsa liteke dagoen testu hau ez dela nahikoa, batzuentzat inposizioa ere badu, beste batzuentzat gehiago behar da. Baina gure buruari galdetu egin behar dioguna da zer egin dezakegu euskararen alde. Tolosan baditugu etorkinak, etorkinak ez direnak ere bai, beraien apustua egin dutenak bere seme-alabentzat euskara ikastea ona dela, D eredia ematen dituztenak, eta ez gera gu, uste dut, inor garenik takometroa jartzeko. Orduan, askatasun osoz bakoitzak bere neurrian zer egin dezake euskararen alde, horren baitan batzuk apustua xumeagoak egingo ditu, baina denak beharrezkoak dira euskararen bizindarra indartu nahi badugu. Testu hau batzuentzat gutxi, bestentzat gehitxo izango da, baina denok adostasun batera iristeak bere balioa du. Hori indarrean jarri behar dugun balio da, urrats bat da. Ikusi beharko dugu bakoitzak bere neurrian zer egin behar duen euskara indartzeko.”

Adierazpenak hitzez hitz honela dio:

“Zer egin dezaket nik euskararen alde?”

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2016

Adierazpena

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera- berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberitzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?"

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz"

Jarraian, mozioa bozkatu egin da eta, aho batez, **onartu da.**

11. Galderak eta eskaerak.

11. Ruegos y preguntas.

... Alkatea: *"Aprobetxatuko dut esateko aurreko aste bukaeran Babarrun edizio berri bat izan da. Berrikuntza handiak izan dira, eragile askok parte hartu dute. Beraz, aprobetxatuko dut momentu hau eskerrak emateko parte hartu duten eragileei guztiek horrelako festa zoragarri bat ospatzeko".*

Besterik gabe, gaueko bederatzia eta laurdenetan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21 horas y 15 minutos de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA